

Balio proposamena

Gure kafetegian postre amerikarrak saltzea erabaki dugu, horrelako postreak saltzen dituzten kafetegien falta nabaritu dugulako. Horregatik, amerikar kultura postreen bidez sartu nahiko genuke. Postre amerikarrak aukeratuko ditugu, gozoak eta sinpleak direlako; beraz, gure kafetegirako egokiak dira, eta pertsonen guztien baldintza espezifikei egokitu daitezke.

Balio kualitatiboari begira, gure kafetegian mota guztietako dietei egokitzen zaizkien postreak eskainiko ditugu. Azkenean, elikadura osasungarria sustatu nahi dugu, gure bezeroek goza dezaten lan egiten duten bitartean, guk proposatutako coworking eremuan. Coworking gunea kafetegitik bereiziko da, gure bezeroek inolako distrakziorik beren proiektuak egin ditzaten.

Aldiz, balio kuantitatiboari begira, lehiakideengandik bereizten gaituena prezioa da. Normalean, horrelako produktuek nahiko prezio altua izaten dute, inportazioagatik. Baina guk ehuneko txiki hori kenduko dugu handizkako erosketak eginez. Produktu horiek epe laburrean ez dira iraungituko.

